

Balorezko proposamena

Proiektu honek, webgunearen erabiltzaile direnen eguneroko bizitza errazten du, mesedeen elkartrukeari esker, norberaren kabuz burutzea buruhauste handia litzatekeen jarduera asko errazten baititu jendearen prestutasunari esker. Esaterako, ateko sarraila konpondu nahi izanez gero, sarrailagile bati deitu ordez, gaian aditu xamarra den webguneko beste erabiltzaile batek egingo lizuke mesedea bere zerbitzuak kobratu gabe, betiere, materialak errazten badizkiozu, berak bere denbora eskainiko baitizu, inoiz ez dirua. Ordainetan, beste edozein erabiltzailereri lagun diezaiokezu zuk, gehiago menperatzen duzun beste edozein alorretan.

Dena den, proiektua mesedeen elkartrukean oinarritzen bada ere, hortik haratago doa, elkarlana sustatzen baitu eta komunitate bateko kideen arteko harremana hobetzeko ere balio baitu, baita jende berria ezagutzeko ere.

Egia da, ekimena erabiltzaileen borondate onean oinarritzen dela dirudiela, eta beren gain uzten dela erantzukizun osoa. Hala da neurri batean, erabiltzaileek euren aldetik jartzen ez badute, proiektuak ziur aski ez luke-eta aurrera jarraituko. Edonola ere, proiektuaren ekintzaile den enpresaren eskutik, kontrol handia dago gauzak ondo funtziona dezaten eta iruzurrik gauzatu ez dadin. Hori gutxi balitz, atentzio pertsonalizatua erabiltzaileen eskura jartzen da edozein arazoren aurrean erantzuteko.